

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - LK- Lurraldearekiko Konpromezua
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Bai jarduera ekintzaileari buruzko GEM txostenak, bai Gipuzkoako lehiakortasun-txostenak, bai EUSTATEk bildutako datuek, generoari lotutako desberdintasunak identifikatzen dituzte, emakumeen ikasketa-maila txikiagoarekin eta emakumeek sortutako enpresek finantzaketa lortzeko zailtasun handiagoekin lotuta, soldata-arrakala, lan-prekarietate handiagoa eta zuzendaritza-postuetan ordezkaritza txikiagoa izateaz gain. Hori islatzen da, besteak beste, genero-arrakala hauekin (balioak negatiboak direnean, aldea gizonen aldekoa dela adierazten du): hasierako fasean dagoen biztanleria ekintzailea (TEA): -15,4 pp; EEA (intra-ekintzailetza): -41,36 pp; ekintzailetza-proiektuetarako kanpo-finantzaketarako sarbidea: -18,97 pp; bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzetan parte hartzea: +0,7 pp; ALTV: ez ikasteko arrazoiak: familia-erantzukizuna: 22,00 pp; zuzendaritza-postuak: -40 pp; soldata-arrakala: -22,93 pp; jarduera-tasa: -9,60 pp; langabezia-tasa: -0,7 pp; lanaldi osoko kontratu mugagabea: -23,62 pp; lanaldi partzialeko kontratu partziala: -33,34 pp, jarduera-sektoreak maskulinizatzeari dagokionez, manufaktura-industriako langileak: -56,12 pp; eta feminizazioari, osasun-jarduerak.

Kuantifikazioa: 1.170.051,30 (% 2,87)

Ordainketa kredituak: 757.291,30 (% 2,92)

Datozen urteetako gastuak: 412.760,00 (% 2,78)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ek.HO.12.1. GFAk sustatutako proiektu ekonomiko estrategiko eta esperimentalen bidez emakumeentzako kalitatezko enpleguen sorrera bultzatzea.	Ek.12.1.3. Emakumeek Gipuzkoako lurraldean sortutako enpresei eusteko laguntza neurriak ezartzea.	(% 100,00)	
Ek.HO.11.1. Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturaren, estrategien eta kudeaketa eremuan.	Balioespen irizpideen berdintasun klausulen sarrera	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Eskulangintza Sektorearen Sustapena
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Ekintzailtza-maila txikiagoak eta enpresa-garapenerako zailtasunak egotea (finantzaketa lortzea eta enpresa-tamaina, batez ere); beraz, sektorearen kalitatezko eta prestigiozko enplegua lortzera bideratutako jarduerak pertsonen garapen pertsonala, profesionala eta soziala ekarriko du, autonomia ekonomikoa eta pertsonala sustatuz, bai eta gizarteari egindako ekarpena ikusarazten eta balioesten laguntzea ere.

Kuantifikazioa: 7.014,17 (% 1,06)
Ordainketa kredituak: 5.157,50 (% 1,09)
Datozen urteetako gastuak: 1.856,67 (% 0,99)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegi txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	(% 100,00)	
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.	Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 120 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzarioa, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen dugu, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikaturako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibilitate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

Kuantifikazioa: 23.114,03 (% 1,35)
Ordainketa kredituak: 13.629,03 (% 1,31)
Datozen urteetako gastuak: 9.485,00 (% 1,41)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea
Funtzionala: 463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoan, I+Gn lan egiten duten langileak biztanleria aktiboaren % 2,7 dira. Hala ere, emakumeak langile horien % 36,2 baino ez dira.

I+Gko emakumeen ehunekoa oso desberdina da diziplina zientifikoaren arabera. Medikuntza-zientzietan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan eta humanitateetan gehiengoa dira, baina ingeniartzaren eta teknologiaren kasuan % 27,9 baino ez dira.

Emakumeak gehiengoa dira administrazio publikoko ikerketa-zentroetan, % 46,5 goi-mailako irakaskuntzan, baina % 30,8 soilik enpresa-eremuan eta zentro teknologikoetan.

Aurreko desberdintasunak programak finantzatutako jardueretan islatzen dira, nahiz eta Fellows Gipuzkoako Erakarpen Programak emakumeen presentzia handiagoa duen.

Kuantifikazioa: 585.038,93 (% 2,96)
Ordainketa kredituak: 515.038,93 (% 3,17)
Datozen urteetako gastuak: 70.000,00 (% 2,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 210 - Enpresa berrikuntza
Funtzionala: 422 - Industria

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen zehatua:

Emakumeak biztanleria aktiboaren % 48 ziren 2023an (EUSTAT), aurreko urtean baino zazpi hamarren gehiago. Emakumeen biztanleria landuna pixka bat hazi zen, eta gizonena, berriz, pixka bat jaitsi. Gizonen langabezia-tasa bi hamarren jaitsi zen ekitaldian; emakumeena, berriz, lau hamarren.

Enpleguaren sektore-banaketa argi eta garbi desberdina da gizonen eta emakumeen artean: emakumeen 87,5 zerbitzuen sektorean aritzen dira, eta sektoreko enplegu osoaren 59,9 hartzen dute; gainerako sektoreetan, berriz, presentzia askoz txikiagoa da: % 20,9 industrian, 15,5 eraikuntzan eta 13 batean (lehen sektorean).

EUSTATen 2019ko datuen arabera, Euskadiko genero berdintasunaren indizea 100etik 73,1ekoa da; adierazle horrek zortzigarren postuan kokatzen du Euskadi, Europar Batasunaren rankingean, baina Estatuaren atzetik. Gipuzkoaren kasuan, ehuneko puntu bat baino gehiago du Bizkaiak (1,6) eta Arabak (1,3) baino. Datu horien arabera, EAEko emakumeek ordezkari txikiagoa dute botere-postuetan eta esparru ekonomiko eta sozialetan.

Kuantifikazioa: 161.045,81 (% 2,00)
Ordainketa kredituak: 126.945,81 (% 2,00)
Datozen urteetako gastuak: 34.100,00 (% 2,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeara.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala:	0530 - Proiektu Estrategikoetako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	300 - Proiektu Estrategikoak
Funtzionala:	439 - Beste jarduketara sektorial batzuk

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Gure gizartean berdintasuna sustatzeko bide garrantzitsuenetako bat enplegua da eta enpresak sortzea da enplegua sortzeko biderik garrantzitsuenetako bat.

Gipuzkoako gizarte-sarean emakumeen eta gizonen artean identifikatutako desberdintasunei dagokienez, egiaztatu da emakumeen langabezia-tasa apur bat handiagoa dela, eta, aldi berean, okupazio-tasa gizonena baino txikiagoa dela, pobrezia-aren intzidentzia handiagoa izateaz gain. Era berean, emakumeek ordezkari-tza txikia dute gizarteratze-enpresetan. Praktikak egiten ari diren pertsonen % 17 baino ez dira emakumeak, eta enpresa horiekin lan-kontratua dutenen % 24. Arestian deskribatutako agertokia aztertzeko informazio garrantzitsuenaren defizita identifikatu du, sexuaren arabera bereizita. Aurrekontu-programa hau gauzatzeko, neurri zehatzak hartuko dira informazio hori "Elkar-EKIN Lanean" proiektuaren bidez biltzeko.

Kuantifikazioa:	1.379.200,00	(% 3,72)
Ordainketa kredituak:	859.600,00	(% 3,34)
Datozen urteetako gastuak:	519.600,00	(% 4,58)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.	Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.	(% 100,00)	